

GURE IRAKURGELA

HUTS EGINDAKO THRILLER-A

Manu Lopez Gaseni

Gauza batean bederen bizitzea eta irakurtzea antzekoak dira: bidean aurrera egiten den neurrian eskarmentua eskuratzen da batean zein bestean.

“Martaren infernua” Pasqual Alapont idazle valentziarraren gazte-eleberriak ibilbide arrakastatsua izan du orain artean, horretarako osagai batzuk biltzen dituelako: klase erdi-altuko ohiko pertsonaia gazteak eta hiriko testuingurua, protagonista nabarmen onak eta antagonista nabarmen gaiztoa, izuzko eta tentsiozko egoera batzuk eta ikaskizuna barne daraman

amaiera zorionsua. Horixe da gaur eguneko gazte-eleberri gehienetan behin eta berriro errepikatu arren, irakurle gazteak nekutzen ez omen dituen eske-ma. Ikasketa unibertsitarioeta-ko azken kurtsoan dabilen neska batek, Martak, izaera aldakorreko mutil bat ezagutzen du, eta hartaz maitemintzen da. Eta, maitasuna itsua omen, pisukide-ek sarritan ohartarazten duten arren, ez da konturatzen mutilaren jarrera iraingarri, bizkarroi eta bortitzaz. Kontrazala irakurritik, irakurleak badaki mutil hori psikopata bat dela; eta atariko kapituluan aurreko neskalaguna hil duela ere badaki. Aurrekari horiekin irakurle despista-

tuenak ere suspensezko garapena eta amaierako klimaxa esperorokoa lituzke. Baina hori antza nahikoa ez, eta narratzaile orojakile, nekoso eta erabat partziala etengabe aritzen da gertakizunak aurreratzen: “Baina Marta gajoak ez zekien ordea infernuko ateen beste aldean zegoela, bere infernu partikularreko ateen beste aldean” (63. or.).

Beste alde batetik, bi maitaleak ez-titan eta maitasunaren garrak erabat jota daudenean ere, eleberri osoan zehar behin ez da ukimen sexualik deskribatzen, ez aipatzen, ez eta iradokitzen ere. Eta irakurle hasberriena ere harritu egiten da. Baina harridura horrek sabaia zulatu arte



Liburua:
“Martaren infernua”
Egilea: Pasqual Alapont.
Itzultzailea:
Koro Navarro.
Argitaletxea:
Erein, 2006.

goia jotzen du eleberria amaitzeko laurdena baino gutxiago falta dela, neska haurdun dagoela iragartzen denean. Alde guztietatik bazter uzteko moduko korapilo berri horrek askapena eskatzen du, noski: psikopataren umea izan ala ez izan. Eta honetan bai, koherentziaz jokatzeko du idazleak: XIX. mendeko narratzaile iruzurtia erabili duenez gero, XIX. mendeko amaiera ere aukuratu du.

Irakurketan bizitzan baino eskarmentu gutxiago duten gazteen artean arrakastatsua izan omen da eleberri hau, arrakastaren eta kalitatearen bideak, oraingoan behintzat, gurutzatu ez diren seinale.